

Pello Urizar

«Ez dago bake prozesurik arriskatu gabe»

Arrasate, 1968. Gazte Abertzaleak-eko idazkari nagusia izana. Arrasateko Udalean zinegotzia da. Elektronika eta Informatika ingeniari teknikoa. Kooperatibismoaren lan esperientzian zaildua, eta politikaren goi-mailara iritsia. Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia da.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

EAKo idazkari nagusia denetik, bere presentzia hedabideetan nabarmena dela adierazi diogu Pello Urizarri: “Kargu honetan hori da niretzat gainditu beharreko koska zailena, komunikabideekiko harremanak ez dira samurrak. Kargua proposatu zidatenean bertigo puntu bat izan nuen. Baina komunikazio taldean ari naiz, elkarlanean. Talde lanetan jarduten ohituta nago, lan munduan elkarlanean aritu naizelako, eta Gazte Abertzaleak-eko idazkari nagusia izanaren esperientzia dudalako”.

2009ko ekainean hartu zenuen EAren zuzendaritza. Egin iezaguzu esperientziaren balorazioa. Idazkaritza hartu nuenean ueña ez zen ona, jakina. Azkeneko hauteskundeetako emaitzek idazkari nagusiaren [Unai Ziarreta] dimisioa eragin zuten. Azken Kongresua egin baino hogeit egun lehenago sektore kritikoko [Hamaikabat] alderdia utzi zuen. Kongresuari sentsazio guzti horiek ezagututa heldu nion. Hala ere, Kongresuan jada nabaritu nuen aurreko kongresuetan hauteman ez nuena: behingoz, azkeneko hamar urteetan ez bezala, EAK zein bide egin behar zuen argiago zegoen. Urratu beharreko bideari eta egin beharreko lanari ekiteko, kideen arteko sintonia zegoela konturatu nintzen.

“Aberri Eguna abertzaleen elkarlanerako mugarrria izango da” esan zuen EAK. Hala izan al da? Bai. Ondoren argitu delako hainbat indar politiko, sindikal eta sozial –bakoitzaren berezitasunak albo batera utziz– prest daudela ekimen amankomunak lehenesteko. Irundendiako Aberri Eguna, gizarteak lehenetsi zuen ekimena, oso adibide ona da. Ekitaldi horretara eragile konkretu batek deitua izan





“EAJri bere helburu politikoak zehaztu ditzan eskatzen diogu, eta ez diezagula kalkulu politikoetarako deitu soilik, ordezkaritza instituzionalez hitz egiteko, alegia”.

balu, ez zuen izandako erantzuna jasoko. Independentistak sarearen ahaleginak merezi du beraz. Horrela jokatzuz gero gizartea mugitzeko aukera dago, gizartearen eskaerak bideratzen has gaitezke.

Bilboko Aberri Egunean EAJk keinu moduko bat helarazi zion EAri, euren bidera biltzeko deia nolabait.

Keinu hori hasieran beste alderdi batzuei egindako keinu bezala zabaldu zen. Gero, jakin dudanez, Urkulluk mezua gehiago zehaztu zuen eta EAri zuzendu zion. Akats handia da deia horrela egitea. Azkeneko hauteskundeetan ere akats bera egin zuen: Patxi Lopez lehendakaria izatearen errua EAri egotzi zion. Duela 24 urte EA jaio izanak egoera hau ekarri duela esatea akats larria da.

Aberri Egunean egindako deiaz harago joan behar du EAJk, deiak konpromisoa zehatzak behar ditu berarekin. Kontsulta Legea eta herri galdeketa ustezko asmoa zela-eta, EAJk bi legealditan jardun zuen Jaur-larritan. EAJk Estatuarekin konfrontazio demokratikoa garatzeko asmorik ez zuela ikusi genuen. Orduan borondaterik ez zeukan eta une honetan ere ez. EAJri bere helburu politikoak zehaztu ditzan eskatzen diogu, eta ez diezagula kalkulu politikoetarako deitu soilik, ordezkaritza instituzionalez hitz egiteko, alegia.

Aralarrek Urruñan burutu zuen ekitaldi politiko nola baloratu duzu?

Ez dut ekimenaren arrazoia ulertu, eta bere oinarriko kide askok ere ez. Alegia, iragan urteetan ez bazuten egin, ez dut ulertzen zergatik aurtan egin duten ekitaldi berezia. Agian horregatik kide batzuk egon ziren Irun-Hendaia ekitaldian. Independentistak sarean Aralarri ateak itxi zaizkiola entzun da. Nire ustez ez da horrela izan, eta ateak irekita egon diren neurrian beren ekimena jarrera alderdikoi batetik egin dutela.

Bake prozesua hizpide: EAren urrats bakoitza Rubalcabaren eta Aresen begiradapean dago. Mugimendu bakoitzeko ohar bat.

Guretzat, oharrak prozesuari buruzko “irakurketa zuzena” egiten duten seinalea da, jakin badakitelako oraingo apustuak etorkizuna duela. Eta etorkizuna izango du bide politiko eta baketsuetatik egingo delako. Bake prozesuaren aldeko apustua aurrera joaten bada, PSOE orain jokatzan ari den estrategia politikoak iraungitze data duela ohartu dira. Aresen gizartearen dagoen beldurra erabiltzen du. Beldur logikoa da azkeneko bi prozesuak gauzatzeko ahaleginak deuseztatu zirelako. Euren mezuen bitartez eszeptizismoa sortu nahi dute egoera desestabilizatzen.

Halere, ezin da ukatu zuen apustua arriskutsua dela.

Batzuek horrela diote: “Kontuz hartzen duzuen arriskuekin. ETA Damoklesen ezpata da”. Dena dela, EAJk apustu egiten du egoera argitzen doan heinean, baita beste eragileekin apustua ere argitzen den neurrian, eta ez bakarrik arlo teorikoan, urrats praktikoak ematen ari diren heinean. Jakin badakigu ahalegina pikutara joan daitekeela eta egoera zailean gera gaitezkeela. Arriskua beti dago, baina ez dago bake prozesurik arriskatu gabe. Bestela zein da alternatiba?

Eragileen urratsak tarteko, zein da ETAk Aberri Eguna kari kaleratu zuen komunikatuaren zure balorazioa?

Lehenik eta behin, ETA ez da eragile politiko. ETAk bake prozesuaren bidetik kendu behar du. Ezker abertzaleari dagokio bide hori egitea. Eta bidetik alboratzea, betirako desageretzea da. ETAren azken agiriak ezer gutxi ekarri du zentzu horretan. Bi puntu dira azpimarragarriak: nazioarteko adituen eskaera aztertuko duela dioena eta “borroka armatua desaktibatuz gero arazo politikoak bukatua izango ote den” egiten duen galdera. Eta guk argi daukagu erantzuna: ez. Izan ere, ETA jaio aurretik arazo politikoak zegoen, eta bera egonda ez da desagertu, eta bera desagertu ondoren ere arazoa politikoak izango da. Areago, ETAk ez du arazo konpontzeko gaitasunik ez zilegitasunik. Herriak izan dezake gaitasuna –zilegitasuna badauka–, beraz, eman diezaiola aukera hori.

Nazioarteko adituen Bruselako Adierazpenaz zer iritzi duzu?

Oso positiboa. Eta euren lana eskertzen dugu, Brain Curryn-ena esaterako. Europako –eta kanpoko– babesa lortzea oso garrantzitsua da. Europar Batasunak munduko prozesu eta gatazka bideratzeko helegite asko lantzen ditu eta Europan dagoen azken gatazka armatua ez lagun-

tzea... ez da bidezkoa. Ezker abertzaleak urrats gehiago emango balitu, gobernu batzuen babesa ere jasoko luke prozesuak. Beste eragile batzuek ere pausoak emateko prest daude, baina hemen gehiago aurreratu behar dugu.

Rubalcabak aldiz Bruselako Adierazpenari garrantzia kendu dio.

Bai, noski. Bide horretan aurrera egin ez gero ETA desagertu daitekeelako. ETAk Espainiako eta Frantziako estatuei argudioak baino ez dizkie ematen abertzaletasunaren aurka jotzeko. Ikuspuntu praktikoa batetik, Europar Euskal Herriko arazoa demokrazian jokatzeko ari dela dirudi ETA erdian dagoelako. Europar arazoa abertzaleok garelako ematen du. Biolentziak arazo politikoa ezkutatzeko du, egoera hori desagertuko balitz arazoa argiago agertuko litzateke eta hain demokratik omen diren estatuek herri honen eskubide demokratikoak ez dituztela errespetatzen ageriago geratuko zen.

“Aurrena bakea” delakoa hizpide: EAk bat egiten du esapidearekin?

Gizartetik eta nazioartetik etor daitzkeen laguntza guztiak aprobetxatu nahi baditugu, bideak soilik bakeatsuak izan behar dira, bestela ez dugu aukerarik. ETA dagoen bitartean ez dago bermerik. Estatua ere erdian egonda ez dago bermerik, baina Euskal Herria subiranotasunaren bidean jartzeko aukerak horitik etorriko dira, bidea gustatu edo ez, beste biderik ez dago.

Zutik Euskal Herria agiriak bat egiten al du esapide horrekin?

Mitchel printzipioetan oinarritzen bada, bai.

Agiria publiko egin zenetik, praktikak hori erakutsi al du?

Guk dugun informazioaren araber, ezker abertzalearen apustua oso serioa da. Badakigu agiriaren jartzen dena praktikan jartzea ez dela erraza. Baina badakigu ere eragile eta alderdi bakoitzak bere zailtasunak dituela, malgutasunez jokatu behar dela. Geuk ere zailtasunak ditugu, eta badakigu noraino heldu gaitzkeen. Denbora kontua da. Denen

“Zabaletak dio Nafarroan baldintzak ematen direla abertzaleon ekimen bateratu bat aurrera eramateko, eta EAEn ez?”

erritmoa errespetatu behar da, eta zentzu horretan epe ertainera egingdako apustua da. Areago, prozesuaren zeregina ez da bakarrik orain agertzen garen eragileena, eragile gehiago erakarri behar dugu.

Polo subiranista hizpide: zer da berau?

Nik ez dut polo hitza erabili sekula. Guk gune subiranista eraiki egin behar dela diogu, eta subiranista izateko garbi izan behar dugula zein den helburua. Egun bizi dugun egoera politikoa gainditzeko soilik gune horrek gaitasuna izan dezakeela uste dugu. Alegia, alderdi bakar batek ez du gaitasunik oraingo egoera gainditzeko, gune horrek bai, gehiengo atzean izan dezakeelako. Guneak era-

kutsi dezake aukera dagoela bide politikoetatik subiranotasunaren ildoan aurrera egiteko, ekimen armatuari bidea itxiaraziz.

Ez dirudi EAJk bide horretan sartzeko asmoa duenik. Halaber, gune hitzaren orde ezker hitza jartzen bada, ez dirudi berehala egingarria.

Denborak erakutsiko du bideak nora eramaten gaituen eta zein parametroekin jokatu dugun. Gerta liteke gunea sortzea, eta gero akordioak egin ahal izatea urratsez urrats, ikuspuntu abertzale eta subiranistetatik alderdi abertzaleen arteko akordioak.

Aralar ez dator bat epe laburrean.

Niri ez zaizkit ulergarri egiten gaierikiko Aralarrek darabiltzan parametroak. Patxi Zabaletak dio Nafarroan baldintzak ematen direla abertzaleon ekimen bateratu bat aurrera eramateko, eta EAEn ez? Ez dut ulertzen.

Zabaletak dioenez, indar abertzaleek bat egin behar dute minimo batzuetan eta aldi berean nork bere esparru politikoa irabazteko lehiatu.

Eta Nafarroan ez? Zein da desberdintasun politikoa? Nafarroako egoera txarragoa dela? Baldintzak emateko abertzaletasunak Nafarroan bizi duen egoeran bizi behar dugu hemen ere? Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako erkidegoa Nafarroakoaren egoerara iritsi behar al da hori justifikatzeko? Abertzaleok gutxiengo izan behar dugu baldintzak egoteko? ■

argia.com Elkarriketaren bertsio luzean politika instituzionalari buruzko atala.



gozatu euskaraz

gure artean euskaraz

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia